

Toti Martínez de Lezea



BRETXA

n a r r a t i b a •

erein

BRETXA

Narratiba, 139

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra

(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com;

91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2022ko otsailean

Jatorrizko izenburua:

La Brecha

Azalaren diseinua:

Aritz Albaizar

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Miren Arratibel

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-602-3

L. G.: D 121-2022

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-posta: erein@erein.eus

www.erein.eus   

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20560 Oñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

e-posta: gertugrafika@gmail.com


www.gertu.net

Toti Martínez de Lezea

BRETXA

Itzulpena:
Miren Arratibel





Santa Teresaren komentua

Santa Maria eliza

Trinitate kalea

Kaia

Txokolatearen etxea

Itsasoko atea

Inigo Goikoa kalea

Kale Nagusia

San Jeronimo kalea

Puñerri



Esterre

Ibentea kalea

Enbeltrio

Kuartel kalea

Plaza Zaharra

Harresia

Lurreko atea

Donostia - San Sebastián

1813



San Telmo

San Bizente eliza

Ikarz kalea

San Bizente kalea

Inigo kalea

Plaza Berria

Zurriola kalea

Zurriolako harresia

San Joan kalea

Erriolo kalea

Erriategi Kalea (Narrika)

Erlines kalea

Lorenzio kalea

Putzu kalea

Putzu kalea

Harresia

Bretxa

(Cubo de Emergencia) Proyecto municipal de saneamiento de la zona que comprende el nº 14 y 15, parcela de número 14.885. Se ha establecido el plano. Se señalan que para tener que el propio plano.

Cubo de Emergencia

DONOSTIA, 1813ko ekainaren 23a

Maritzu Altuna Eusebio Irigoien txokolategilearen alargunak goitik behera ikuskatu zuen lantegia, dena zuzen eta txukun zegoela ziurtatzeko. Gogaitu egiten zuen nahasmenak, eta ezin zuen eraman lan-mahaien gainean tortika edo hauts izpirik zein lanabes zikinik ikustea. Garbi-garbi nahi izaten zuen lokala; inor aurrez abisurik eman gabe agertuta ere, patena baino garbiago aurkitzea dena. Hain zuzen ere, langile bat baino gehiago kalera-tua zuen txukuntasuna zela tarteko, eta, horrek ugazaba suminaren ospea ekarri bazion ere, ez zuen jarrera aldatzeko inolako asmorik. Ez zen, noski, negozio baten buru zegoen emakume bakarra, baina gazterik hasi zen bera, eta zorrotz jokatu beharra zegoen, hornitzaileek nahiz enplegatu eta bezeroek begirunez hartuko bazuten.

Goztegiko lantegian buru-belarri lanean ari ziren ofiziala eta hiru laguntzaileak, eguneko ekoizpenean, eta bor-bor irakiten ari zen kobrezko bi lapikoren edukia.

—Pronto al dago? —galdetu zion Julian ofizialari.

—Bai, andre Maritzu. Nahi duzunean...

Hitz erdirik esan gabe, emakumeak eskuan zeraman zorrotxo ireki, eta lapikoetako batera bota zuen edukia. Gizonak egurrezko pala batez nahasturari nola eragiten zion begira egon zen minutu batzuez, eta, gero, lantegitik atera zen.

Ia hamabost urte ziren eragiketa berbera egiten zuela goizero-goizero, senarra hil ondoren negozioaren kargua hartu zuenetik. Ezinezkoa iruditzen zitzaion hainbeste denbora igaro izana, baina halaxe zen. Marina alabak bete berriak zituen hamabost urte, eta hura jaio eta hilabetera zendu zen Eusebio. Ez zuen izan erditzetik suspertzeko astirik ere ia. Santa Maria elizan sartzea egin ondoren erditu eta berrogei egunera, lantegiaren kargu egin zen, Pedro Martin koinatuaren iritziaren kontra, hark espero baitzuen anaia zendu berriaren negozio oparoa bere gain hartzea, argudiatuz ezin arituko zela hogeituro urteko emakume bat gizonen lanbidean.

—Alarguntzeko eta haurra egiteko adina badut, izango naiz lantegia zuzentzeko gauza ere —bota zuen berak, biribil.

Baita halaxe egin ere, harrezkero, sakrifizio handiz, hori bai, orduan hartutako erabakiaz damurik izan ez arren. Lanak estali zion Eusebioren galerak sortutako pena, atse denik ematen ez zion bakardadea, bere oheko hutsunea. Instanteko apeta bat izango zela pentsatu zuten senarraren familiak eta auzokoek. Laster aurkituko zuen beste gizon bat, halaxe esaten zuten; eta orduan ekingo zion, negozioa haren esku utzita, alaba hazi eta ume gehiago egiteari, emakume zentzudunari zegokion moduan. Ez zen, baina, horrela gertatu. Batzuetan, bere buruarekin harritzen zen, pentsatuz zein bide bitxiak aurkitzen dituen patuak bakoitzari

erakusteko benetan zertarako gai den. Nork esan behar zion berari lortuko zuenik saltoki bat gobernatu, hornitzaile eta zordunekin tratuan aritu, kontuak egiten ikasi eta etekinak handitzea. Egia baitzen, eta ezingo baitzuen inork hura ukatu: lantegia itxi beharrik ez izateaz gainera, kakao hauts eta txokolatezko pastillen saltoki oparoa bihurtu zuen negozioa eta, hori gutxi balitz bezala, publikoarentzat zabalik zuen lokal hura zen Donostian jende gehien ibiltzen zena.

Kafea, tisanak eta edari biziak ere zerbitzatzen zituzten Txokolatearen Etxean, Kale Nagusiaren eta Iñigo Goikoa kalearen arteko kantoian; baina edateko txokolate bero bikainagatik zen bereziki ezaguna: denek zuten gozo hura biziki preziatua, gazteek eta zaharrek, umeeek eta andreek, neskato ezkongaiak eta soldaduek, merkatari aberatsek, arrantzaleek nahiz barazkiak saltzen ibiltzen ziren baserritarrek. Ez zuen bezero faltarik goiz erdian ateak zabaltzen zituenetik iluntzean itxi arte. Eta une eta egun jakin batzuetan, igande eta jaiegunetan esaterako, mahairen bat libratu zain egon behar izaten zuen jendeak.

Izango ziren plazan hogeita hamar maisu txokolategiletik gora, frantsesak gehienak, baina etxe hartako etxeoandreak ondotxo zekien zein zen bere arrakastaren gakoa: Hiriart jaunaren isilpeko errezeta. Baionako txokolategilea bisitan joan zitzaion bere senarraren heriotzaren berri izan orduko.

—Zinez estimatzen nituen Eusebio, eta, Eusebioren aurretik, haren aita, Juan Jose Irigoien, eta biziki poztenu jakiteak negozioarekin jarraitzeko asmoa duzula. Zure

koinatuak nahiago du kafea, eta, ziur asko, lantegia biltegi bihurtuko zuen azkenerako. Gogor saiatu beharko duzu, jakina, baina ziur naiz aurrera aterako zarela; bereziki –gehitu zuen konplizitatezko imintzio batez–, duela urte batzuk Antilletatik heldu zitzaidan eta nik beste inork ezagutzen ez duen errezeta honekin...

Ez zuen besterik esan, baina zenbait bider tolestutako papertxo bat jarri zion eskuan. Ez zuten gehiago elkar ikusi. Jakin zuen Hiriart jauna handik gutxira hil zela eta haren oinordekoek itxi egin zutela gizon hark hain kutuna zuen txokolategia. Aurretik antzemana izango zien Hiriartek halako asmoren bat eta horregatik emango zion errezeta, bera hil ondoren galdu ez zedin. Errezeta buruz ikasi, eta papera erre zuen Maritxuk. Berak beste inork ez zuen haren berri, eta alabari azalduko zion, apur bat nagusiagoa zenean. Maritxu goizero jaisten zen zorrotxo batean zeramala nahastura, berak prestatuak etxean, lantegiaren goiko solairuko etxebizitzan, osagai «magikoekin», halaxe esatea gustatzen baitzitzaion norbaitek formula galdetzen zionean: kanela, banilla eta azukre nahastura bat, kafe eho pixka batekin. Eskaintza eskuzabal askoak jasoak zen isilpeko hura argitzearen truke, baina bazekien, ongi jakin, hura inori erakutsiz gero berehalakoan galduko zuela bere produktua hain erakargarri egiten zuen misterioa eta herrian eskaintzen zituzten hainbaten arteko bat gehiago bihurtuko zela.

Berriro egiaztatu ondoren bere tokian zegoela dena –mahaiak, katiluak, koilaratxoak, edalontziak, ur azukreduneko pitxerrak eta Martirena okinak egunero eramaten zizkion opil egin berrien erretiluak–, hartu zuen iltze batetik zintzilik

zegoen giltza sorta, ireki zituen Kale Nagusira ematen zuen ateko bi sarrailak, eta pare bat mahai prestatzen hasi zen, koa-dro zuri-gorridunezko mahai-zapi batzuk zabalduz. Astegun buruzuria zen, beste edozeinen modukoa, eta bezeroak eguerdi aldera hasiko ziren, eta, batez ere, arratsalde erdian. Bazuen garaia, akaso, neskaren bat hartzeko, goizetan lokalean zerbitzari aritu zedin; horrela, denbora pixka bat edukiko zuen alabarentzat eta beretzat. Marinarekin kezkatuta zebilen-eta.

Negozia, lanordu amaigabeak eta bakar-bakarrik konpondu beharreko arazoak gorabehera, istant batez ere ez zitzaien burutik pasatu haurtzain bat hartzea alabatxoa hazteko. Gogoratzen zuen txikitan, nola egoten zen bere sehaskan, lantegian, Bizente Joxe zaharraren zaintzapean, zeina izan baitzen enplegatua baino gehiago etxekoa, aitona baten modukoa. Azken urteetan, agureak lanak izaten zituen sutondoko aulkitik altxatzeko ere, baina inola ere ezin hura gogatu etxean gera zedin. Txokolatearen usainak ematen zion bizia, hala esaten zuen Bizente Joxek berak, eta lantegian lokartu zen betiko, irribarre bat ezpainetan. Maritxuk ongi gogoratzen zuen, halaber, Marina lokalean korrika, bezeroekin berriketan, lagundu nahi eta ezinean. Ume zoriontsua izan zen, baina aldatuta ikusten zuen azken hilabeteetan. Uzkur egoten zen batzuetan, triste ez esatearren, eta bere logelan ematen zuen denbora gehiena, hitz erdirik ere egin gabe ez berari ez Joxepari, gazteagotan ez bezala; beste batzuetan, berriz, suminkor agertzen zen, edozer gauzogatik kexu. Adin zailean zegoen, emakumetzen ari zen, eta esperientzia hark beti ekarri ohi zuen gatazka,

nahiz eta, Maritxuri zegokionez, ez zuen izan konturatzeko ere betarik.

Ez zen alaba baino askoz nagusiagoa Eusebiorekin ezkondu zenean. Pubertaroaz ohartzerako igaro zen haurtzarotik heldutasunera, eta hogeitau urte bete gabea zela amatu zen. Ez zuen nahi Marinarentzat ezkontza goiztiarrik; ahal bezain luze gozatu nahi zuen haren konpainiaz. Jabetzen zen, noski, egunen batean besteren etxean habia egingo zuela bere txoritxoak, baina nahiago zuen une hura urtetxo batzuk atzeratzea, bakar-bakarrik geldituko baitzen bera ezinbestean. Alabarengan jarri zuen bere maitasun guztia; min ematerainoko indarraz maite zuen. Gau batzuetan, larriturik esnatzen zen, amets gaizto izugarrietan ikusiz bere alabatxoa haize mendebalak zeramala edo olatu artean desagertzen. Halakoetan, altxatu eta alabaren gelara joaten zen. Hura onik zela eta lasai lo zegoela egiaztatu arte ez zen oheratzen berriro. Eginahal handiak egin behar izaten zituen bere begitazioei amore ez emateko, baita bere maitasun neurrigabea ez adierazteko ere. Ez baitzen ona gazte baten-tzat itolarria eragin eta askatasunez haztea eragotzi liezaiokeen maitasun batek harrapatuta ikustea, hala gerta ez zedin inola ere sentitzen ez zuen irmotasun bat itxuratu beharko zuen ere amak.

Gizonezko ahots batzuek bere gogoetatik aterarazi zuten. Atera begiratu, eta ezin izan zion eutsi asperdurazko keinu bati; sakon hasperen egin, eskuez mantala leundu, eta aurpegiera adeitsuaz atera zen bezeroengana. Hiru militar frantses ziren.

—Egun on, Mercier kapitaina eta konpainia.

—Egun on, andre Maritxu —erantzun zuen aipatu be-
rriak, adar biko kapela erantzi eta zegoen tokirako agur han-
patuegia eginez—. Gazteluraino igotzen da zure txokolatearen
usaina, eta ikuskapenari ekin aurretik hemendik pasatzea
pentsatu dut.

Prestatu berri zituenetako mahai bat erakutsi zien ema-
kumeak, eta hantxe jarri zizkien katilu batzuk eta opilez be-
teriko plater bat.

—Orain zerbitzatuko zaituztet —esan, eta lantokira sartu
zen. Txokolate ontzi ketsu bat hartuta berehala itzuli, eta txo-
kolatea katiluetara isurtzen hasi zen.

—Ene, andrea... azalduko ote didazu, egunen batean,
txokolatea prestatzeko zure isilpekoa zein den?

—Egunen batean, kapitaina, egunen batean...

Militarrek sabelkeriaz ekin zioten txokolatea eta opilak
jateari, eta Maritxu beste mahai batzuk prestatzen hasi zen,
haiekin hitz egin beharra saihesteko, bide batez. Frantsesek
amaitu orduko alde egin zezaten espero zuen; uxatu egiten
zioten bezeria. Haiek zeuden bitartean, ez zuen lokalean oin
bat jarriko frantsesa edo haien kausaren aldekoa ez zen inork.
Bazekien auzoko batzuk beraz gaizki esaka aritzen zirela in-
baditzaileei zerbitzatzen zielako eta frantsestutzat zutela,
baina zer egin behar zuen berak, ba? Gainera, ez zen bakarra;
plazako beste dendariak ere zerbitzatzen zieten.

Bost urte betetzear ziren frantsesek Donostia okupatuta
zeukatela, eta ez lehen aldiz. Hemeretzi urte lehenago ere
okupatu zuten. Ordukoan, gaitz erdi izan zen okupazio mi-
litarra, eta buru egin gabe amore eman zuen herriak. Guda-
rostearen eta tokiko agintarien artean hitzartutako errenditzeak

saihestu zuen herriaren alferreko defentsa, zeina amaituko baitzen hondamendian, ezinezkoa baitzen frantses gudaroste ongi hornituari aurre egitea gazteluko berrehun soldaduz eta okasiorako armatutako mila bat zibilez osatutako batailoi batekin. Hiriko bizitzak bere hartan jarraitu zuen, aztoramen handirik gabe, eta frantsesak eta gipuzkoarrak harmonia on samarrean bizi izan ziren bi urtez elkarren alboan. Pare bat bider besterik ez zuten erabili plazan ezarritako gillotina: desertore batekin eta apaiz errefraktario batekin, mugaz bestaldekoak biak. Orain, ordea, oso bestelakoa zen egoera. Hildakorik eragin ez bazuen ere, bost urtera zihoan inbasioa, luzeegi.

Maritxuk ez zuen haiengatik kexarik. Militarrak bere lokalera joaten ziren, ez zuten istilurik sortzen, eta zintzo ordaintzen zuten hartutakoa. Litekeena zen horretan eragina izatea Maritxuk haien hizkuntza jakiteak eta, gainerako bezeroak bezalaxe, haiek begirunez tratatzeak. Gogo onez ukatuko zien sartzea, hala ere. Ez zuen politika kontuekiko interes zipitzik, ezta inoiz haiez kezkatzeko inolako asmorik ere; baina gauza bat zen bertako agintariak jasan behar izatea, eta beste gauza bat, oso desberdina, armak beste zilegitasunik ez zuten atzerritar batzuei men egitera behartuta gotea.

Hausterre eguna eta Ostegun eta Ostiral Santu egunak kenduta –nahitaezkoa baitzen egun haietan ixtea–, behin bakarrik itxi zuen Txokolatearen Etxearen kargu zeramatzan urteetan: Josef Bonaparte iritsi zenean, haren anaia Napoleonek Espainiako errege izendaturik. Egun hartan, donostiar gehienek bezala, eta, zer esanik ez, Esnategi eta Trinitate kaleetako bizilagun guztiek bezala, kale haietatik igaro baitzen segizioa,

itxi egin zituen etxeko leihoak, baita lantegiko barne atepak ere, eta Marina eta Joxeparekin egun-pasa joan zen familiaren baserriera, Zubietako auzora. Ez ziren herrira itzuli biharamunera arte, errege berria Madrilera alde egina zen arte. Frantsesek inbaditu nahi bazuten, inbadi zezatela, baina ez zezatela espero gainera herritarren babesik, eta are gutxiago berea.

Frantziarekin merkataritza harreman onak izan arren eta hirian nazionalitate hartako biztanleak ugari ziren arren, asko eta asko Donostiako emakumeekin ezkonduak, nahiko tirabiratsuak ziren okupatzaileen eta okupatuen arteko harremanak; ez zegoen gipuzkoar askok aspaldiko garaietan auzo herrialdeko iraultzari adierazitakoaren moduko adiestasunik. *Gabatxo* inbaditzaileek gutxietsi egiten zituzten donostiarrek, iseka egiten zieten haien hizkuntzari, ohiturei, janzkerari; kolpez tratatzen zituzten herritarrek, eta akusatzeko beren mugimenduak zelatatzeaz; salgaiak eskatu, eta ordaindu gabe uzten zituzten; ernegatu egiten zituzten emakumeak; eta makina bat lagun joaten zitzaizkion egunero alkateari frantses soldadu jendeen gehiegikeriazko tratua kexu. Maritxuk berak ere begi onez hartu izan zuen iraultzaren kontu hura; garai hartan, ume moko bat zen artean, baina aitari entzun ohi zion, errepublikaren aldeko gizon susua bera:

—Alferrik ditugu erregeak, herriaren lanaz eta odolaz elikatzen diren jan-txakur halakoak! Zer dela-eta eduki behar dute, ba, gainerako herritarrek baino eskubide gehiago? Besteak bezalaxe jaiotzen dira, eta besteak bezalaxe hiltzen. Eta gillotinan amaituko dute, erlojugileak eta austriarrak bezala, bai horixe!

Luis XVI.ari eta Maria Antonietari buruzko aipu harekin edo haren antzekoren batekin amaitzen zituen, beti, aldarri errepublikazaleak.

Urte askoan, idatzi iraultzaileak agertu izan ziren beren etxean auskalo nondik, goersten zutenak herriaren borroka tiranokeriaren kontra. Espainiako gobernuak debekatu egin zuen Frantziako argitalpenen sarrera, eta zentsura zorrotza ezarri zien argitalpen nazionaleri, ez zedin gerta Pirinioez beste aldera bezala; baina bere aitak lortu zuen, zentsura eta debeku haiek saihestea ez ezik, Parisko Biltzarrak plazaratutako *Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena* eskuratzea. Gaua joan gaua etorri jardun zuten aitak eta haren bazkide Jean-Baptistek, hogeita hamar urte baino gehiago Donostian finkatuta zeraman baionar batek, adierazpen hura itzultzen, buru-belarri; eta ehun bat kopia egin zituzten, Kafearen Etxeko tertuliakide ilustratu eta errepublikazaleei banatzeko. Batzuetan, Maritxu aitarekin joaten zen Eusebioren aitak urte batzuk lehenago suitzar bati erositako lokalera, zeinaren jabe baitzen, orain, Pedro Martin koinatua. Aitaren ondoan eserita, oharkabean igarotzen saiatuz, Maritxuk aitari entzuten zion adierazpena irakurtzen, doinu hanpatu eta hunkigarriaz, halako antzezpen kutsu batez. Hamazazpi artikuluetatik bat gelditu zitzaion gogoan iltzatuta, lehena: «Gizonak askeak eta eskubideetan berdinak jaiotzen dira, eta hala irauten dute. Bereizketa soziala onura komunean baino ez daiteke oinarritu». Hainbeste urte igarota ere, ongi gogoratzen zituen haren hitzetako bakoitza, eta maiz aurkitzen zen hitz haiek bere baitarako esanez, baina «gizonak» hitzaren ondoren, beti, «eta emakumeak» eransten zuen berak.

Bilera sasi klandestino haietan ezagutu zuen Eusebio, bera baino hamar urte zaharragoa eta itxura oneko mutila. Hasieratik egon zen hartaz gustatuta, nahiz eta, orain, urrutetik begiratuta, ezin esango zukeen hura ikusi hutsarekin maitemindu ote zen beraz, edo neskatila eskarmentugabe eta haurtzarotik atera berriaren lilurak bultzaturik onartu ote zuen haren ezkontzeko eskaera. Asaldura handiko eta etorkizun zalantzarigarriko garaiak ziren, eta erabaki zuten lehenbailehen ezkondu eta beren negozioa sortzea.

—Zoragarria! Beti bezala, andre Maritxu.

Ezustekoa eman zion kapitainaren ahotsak, eta haien mahaia hurbildu zen. Militarrek eskuan txanpon bat jarri, eta eskutik heldu zion, adi-adi begira.

—Beti bakarrik? —galdetu zion Mercierrek, ezpainak Maritxuren belarrira hurbilduz.

—Inoiz ez nago bakarrik, jauna —erantzun, eta eskua erretiratu zion.

—Gauetan ere ez?

—Ezta ere.

—Galai sekreturen bat?

—Baliteke...

—Eta zer egin beharko nuke nik zure kariñoa lortzeko?

—Nire herritik alde egin, eta zibil modura itzuli.

Frantsesak irribarre egin, eta irten egin zen, laguntzaileak atzetik zituela. Senezko keinu batez, eskua mantalean garbitu zuen Maritxuk. Baziren pare bat hilabete kapitaina limurkeriatan zebilela eta lokalean agertzen zela bezerorik ez zegoeanean, irekitzeko edo ixteko orduan. Bere adintsukoa izango zen, gutxi gorabehera, eta ez zuen itxura txarrik. Beste egoera

batean eta bake garaian, grazia eta guzti egingo zion, akaso. Gainera, ezin ukatuko zuen, atsegingarria zitzaion hogeita hamabost urte izanik norbaiti erakargarri gertatzea. Ez zitzaion senargaitzakorik falta izan alargundu ostean, gaztea baitzen oraindik, azken batean, eta negozio baten jabea; baina interesdunei egiten zizkien uko eta erdeinu etengabeek uxatu ziztuzten den-denak, eta aspaldi zen inork beraganako interesik ez zuela, edo adierazten ez ziola, behinik behin. Inoiz burutik pasatu zitzaion euli-mando haietako bat onartzea, Marina ezkontzean bakarrik ez gelditzearren, baina aitaren bat ere ez zion iraun burutazioak. Ez zuen beste senar bat ehorzteko asmorik; latzegia izan zen lehenengo aldia, oso etsita egonez gero baino ez zuen inbaditzaile bat bere ohean sartuko, eta ez zegoen egoera horretan.

—Bazen garaia! —bota zuen, alaba iristen ikustean—. Zer zeregin zenuen, ba, lanera berandu etortzeko bezain garrantzizkoa?

Gazteak ez zuen erantzun, eta zuzenean sartu zen lantegian, amak orpoz orpo zerraiola.

—Erantzun egiten da norbaitek galdetutakoan —erantzuki egin zion, irmo.

—Bost axola zer esaten dudan. Ez didazu sinetsiko-eta... —esan zuen gazteak, amaren doinu beraz, mantala janzen zuen bitartean.

—Nik erabaki beharko dut hori. Zergatik tematzen zara berandutzen, jakinik garaiz iristea nahi izaten dudala?

—Eta zer axola dio bost minutu lehenago edo geroago etortzea? Ezta pixka bat atzeratzeagatik mundua eroriko balitz ere...

—Erantzukizun kontua da. Obligazio bat duzu betetzeko eta ofizio bat ikasteko.

—Ez dut txokolategilea izan nahi, ordea.

—Eta zer izan nahi duzu, ba, jakin badaiteke?

—Ez dakit, baina txokolategilea ez.

—Zergatik?

—Nahi ez dudalako.

—Ez zara, gero, gure ofizioaz lotsa izango? —Zorrotz ari zitaion Maritxu—. Ez al dituzu horri esker erosten, ba, hain gogoko dituzun soineko horiek?

—Oihal arruntez jantziko naiz zuk nahiago baduzu, neskameak bezala, eta oinutsik ibiliko naiz kalean, haiek bezala.

—Horiek, behintzat, ogia irabazten dute...

—Nahi ez baduzu, ez dut jango, orduan —bota zuen gazteak, erronkari.

Istant batzuez begiradaz neurtu zituzten indarrak.

—Zoaz azukregilearen etxera, atzo eskatu nizkion boladuen bila —agindu zion amak, azkenik.

Marinak berriro mantala erantzi, zumitzezko otarre laukizuzen bat hartu, eta agurrik esan gabe alde egin zuen Iñigo Goikoara ematen zuen atetik. Erretxinduta esnatu da alaba, pentsatu zuen Maritxuk, eta isilik edo erantzun lotsagabeak emanez pasatuko du egun osoa. Zergatik gertatzen zitzaion hain zaila ganorazko elkarrizketa bat izatea? Kalera irten zen, alaba ikusten ote zuen. Pixka bat aurrerago zegoen, bere lagun batekin hizketan: Teresa, Etxaniz eskribauaren alaba. Janzkera «frantsestua» zuten biek, gerri altua, papar karratua eta mahuka motzak; janzkera huraxe zegoen boladan Europa

osoan, eta, jakina, Donostian ere bai. Marina berriketan eta barrez ari zen, otarra kulunkatuz. Eguediko eguzkiak distira egiten zuen haren popelinazko soineko urdin argian eta xingola zuri batez apaindutako ile gaztaina kolorean. Ez zuen ematen orduantxe lantegitik muturtuta ateratako neskatu bera, eta, aitortu nahi ez bazuen ere, apur bat jeloskor sentitu zen Marina. Nahiko luke berak bi gaztetxoek kontuen berri izan, haiekin barre egin, gazte sentitu bera ere. Elkar agurtzen ikusi zituen, eta, handik gutxira, jende artean desagertu zen bere alaba, Plaza Berrirantz. Begirada hantxe iltzatuta gelditu zen puska batean, guttiz erabakita alaba ulertertzeko ahalegina egitera, alaba berreskuratzera. Ez zuen inola ere onartuko bere aitarekin bezala gertatzea alabarekin. Bakarra dugu bizitza, eta sekula berreskuratu ezingo den denbora galdua dira elkar maite duten pertsonen arteko isilaldiak. Gero, lantegian sartu zen.

Eguedia baino pixka bat lehenago, Pedro Martin Iriegoien arrapaladan sartu zen Txokolaterearen Etxean.

—Azkenean! Gobernu atzerritarretik libre gara, azkenean! —oihukatu zuen, euforia betean.

Une hartan lokalean zeuden dozena erdi bezeroak inguruan pilatu zitzaizkion, baita Maritxu, ofiziala eta aprendizak ere, lantegitik atera baitziren iritsi berriaren oihuak entzunda.

—Sarkina azpiratu dute Gasteizen! Milaka frantses hil dituzte, eta ehunka hartu atxilo!

—Noiz? —galdetu zuen Maritxuk.

—Duela bi egun. Oraintxe iritsi da posta, berriarekin.

—Eta sarkina? —esan zuen don Frantzisko Gurutzeaga notarioak, zeina bizi baitzen Kale Nagusiko jauregi txiki batean, lokalaren parean, eta joaten baitzen hara egunero, hamabiak puntuan.

—Ihesi! Estutik lortu du Nafarroara ihes egin eta Frantziara pasatzea. Laster iritsiko da gudaroste aliatua eta botako ditu inbaditzaileak gure lurretik, behin betiko. Aske gara, lagunak!

Minutu gutxiren buruan, berriak entzuteko irrika zuten auzokidez gainezka zegoen txokolategia, eta albiste iritsi berriak errepikatzen ari zen Pedro Martin isildu gabe. Udaletxera joatea proposatu zuen norbaitek: alkateak eta errejidoreek izango zuten gertatutakoaren berri xeheagoa. Esan eta egin: arrapaladan atera ziren denak lokaletik, batzuk lasterka ere bai, Iñigo kalean behera Plaza Berri aldera; dozenaka lagun zihoazen harantz.

Maritxu bakarrik geratu zen. Buru keinu batez eman zien irteteko baimena Juliani eta laguntzaileei, haien begirada erregutzaileak ikusita. Baten batek gelditu beharko zuen bere tokian, pentsatu zuen bere baitarako, eta, gainera, berehala itzuliko ziren. Kalera irten, eta zalapartari so gelditu zen, besoak gerrian, negozioaren jabe arduratsuaren oso bere tokian. Handik pixka batera, ordea, jakin-minari eutsi ezinik, marmitak su gainetik kendu, negozioko ateak itxi, eta plazara abiatu zen bera ere. Jendez lepo zegoen, eta ez zen arimarik kabitzen leiho eta balkoietan ere. Itxaronaldi estu baten ondoren, Bengoetxea alkatea udaletxeko balkoira atera, eta isildu egin zen zalaparta. Herrikideen atsekaberako, jadanik

bazekiten hura errepikatu besterik ez zuen egin zinegotziburuak: gudaroste inperiala menderatu zutela Gasteizen, eta arrapaladan zihoala muga aldera ihesi. Jakin-minezko isiltasun bat sortu zen haren hitzen ondoren.

—Eta horko horiek? —oihukatu zuen ahots batek, isiltasuna urratuz, ahotsaren jabea gora seinalatzen ari zela, Urgull mendi aldera—. Noiz alde egin behar dute horko horiek?

Bost mila eztarik ia aho batez errepikatu zuten galdera.

—Ez dute alde egingo —erantzun zuen Bengoetxeak, eskuez lasaitasuna eskatu ondoren—. Hemen gelditzeko eta gaztelua defendatzeko aginduak dituzte.

Oihuak entzun ziren berriro, eta kostata lortu zuten alkateak eta harekin batera agertutako errejidoreek jendeak jaramon egitea.

—Gudaroste aliatua Donostiara lau edo bost egun barru iristea espero dugu. Rey jeneralak jakinarazi dit herritik alde egin nahi dutenak arazorik gabe irten ahal izango direla.

Une batez ikara nagusitu zen, baina, berehala, plazaren lau irteeretarantz mugitzen hasi zen giza uholdea, eta arras-taka eraman zuen Maritxu, hari aurre egin ezinik. Ez zeukan ezertan pentsatzerik; lurrera ez erortzea zuen kezka bakarra, auzokoek zapalduko zuten bestela. Bultzakadekin eta jasotako kolpe batzuekin minduta bazegoen ere, lortu zuen nola edo hala lantegira iritsi eta barruan babestea. Izerdia zerion gorputz guztitik, eta denbora puska bat kostatu zitzaion baretzea. Alabaz gogoratu zen aurrena. Non ote zegoen? Ez zen enkargutik itzuli, eta ez zuen pentsatu ere egin nahi zalaparta hartan zanpa zezaketenik. Lasai hasperen egin zuen handik gutxira alaba sartzen ikustean, Julianekin eta apendizekin.

Gorri zituen masailak, itolarriagatik; ileko xingola falta zuen, eta sorbalda gainetan aske zituen kizkurak. Maritxuk ez zuen sekula hain eder ikusi.

—Ekarri al dituzu boladuak? —besterik ez zitzaion bururatu, urduritasuna disimulatzeko.

—Bai, ama; hemen.

Gazteak otarrea estaltzen zuen zapia jaso, eta barrura begiratu zuen Maritxuk. Apenas gelditzen zen boladurik oso-rik. Almibar, arrautza zuringo eta limoi urez egindako azukre xafla harro haiek uretan deseginda hartzen ziren, eta oso preziatuak ziren txokolate katilukada baten ondoren. Baina txiki-txiki eginda gelditu ziren.

—Sentitzen dut... —desenkusatu zen Marina—. Hainbeste jenderekin... eta hango bultzakadekin...

—Ondo da. Berdin dio. Ez dut uste gaur bezero asko izango dugunik; istilu honekin, nahiko lan izango du jendeak...

Orduantxe koinatua sartu, eta Maritxuren hitzak eten zituen.

—Zenbat eta lehenago alde egin, denontzat hobe!

—Alde egin? Zer dela eta? —galdetu zuen Maritxuk, lasai plantak eginez, alaba ez kezkatzearren.

—Ez al duzu entzun alkateak esandakoa? —Pedro Martin ez zen gelditu erantzunaren zain—. Argi asko esan du, bala lau egun barru hemen dira aliatuak, eta herria ebakuatzeko baimena eman digu jeneralak.

—Eta zergatik ebakuatu behar genuen guk herria? Frantsesek gerra galdu dute, haien gudarosteak muga zeharkatu du, eta gaztelukoek ere alde egin beharko dute, edo errenditu.

—Esaten dutenez, jeneralak ez dauka inolako intenziorik ez bata ez bestea egiteko. Gainera mila eta bostehun gizon gehiago iritsi dira, eta aurre egiteko asmotan dabilta.

—Borroka egin gabe errendituko dira –bota zuen Maritxuk, uste osoz–, haiek iritsi zirenean gu errenditu ginen bezala.

—Baliteke, baina hobe dugu zain ez gelditu. Zibilak bi suren artean ikusiko gara frantsesek eustea erabakiz gero.

—Ez dakit ba... Zer gertatuko da gure negozioekin?

—Utikan negozioak, bizia egonik jokoan!

—Erraz esaten duzu zuk, badituzulako kontuak beste toki batzuetan, baina hau besterik ez dugu guk.

—Hara, ez daukat zurekin sesioan denbora galtzen ibiltzeko asmorik –esan zuen Pedro Martinek, burua astinduz, atsekabeturik–. Zuk nahi duzuna egin, baina ni oraintxe bertan noa Pasaiara.

Atea danbateko batez itxiz atera zen lantegitik, eta pentsakor utzi zuen koinata.

—Andre Maritxu...

Julian, ofiziala, eta aprendizak begira zituen, kezkatu.

—Zer da?

—Zuk uste...?

—Arriskua dagoela? Beti izaten da arriskua halako egoeretan.

—Orduan...

—Egin ezazue iruditzen zaizuena.

—Eta zuk?

—Pentsatu egin behar dut.

Maritxuk hasieran uste izandakoaren kontra, Txokola-tearen Etxea jendez lepo bete zen atea zabaldu orduko, eta bazkalorduan ere ezin izan zuen itxi. Bilgune bihurtu zen lokala, baita herritik alde egitearen aldekoen eta gelditzearen aldekoen arteko eztabaidagune ere. Alde egitearen aldekoen argudioak ziren egoera badaezpadakoa zela eta bonbardaketarik gertatuz gero herritarrentzat arriskua sor zitekeela; eta haien kontrakoei, berriz, argudiatzen zuten beren ondasunak babestu behar zituztela eta, are garrantzizkoagoa zena, hiriak inongo unetan ez ziola babesik adierazi armada inbaditzailerari. Ez zuten zertan kezkatu. Mezu gehiago iritsi ziren Gasteizen jazotakoaren gaineko berriekin. Eta denek zioten zibilek ez zutela kalterik izan.

Maritxu elkarrizketei adi-adi zegoen, bezeroei zerbitzatzien bitartean, zer egin erabaki ezinik. Zentzuak esaten zion itxi eta Zubietara alde egiteko, Marina eta Joxeparekin; Donostian gelditzera bultzatzen zuen borondateak, aldiz. Pazkoz elkartu zen aitarekin azkenekoz, eta baserrira itzultzeko eskatu zion hark, hamabost urte haietan lehen aldiz.

—Erakutsi duzu, ongi erakutsi, gauza zarela zure kasa moldatzeko, eta ez duzu zertan jarraitu —esan zion.

—Ez da ezer erakusteko kontua —erantzun zuen Maritxuk, aitak esandakoarekin suminduta—. Nire bizibidea da.

—Ederra bizibidea, negozio batean gizon baten modura lanean jardutea! Hobe zenuke berriro ezkondu eta niri biloba gehiago ematea.

—Ez dut gizonik behar aldamenean.

—Emakumeak senarra behar du. Arraioa!

—Baten bat aurkitu didazu ala?

—Ez zaizu gizon zintzorik faltatuko hemen, Zubietan.

—Kalea dut nik gustuko.

—Soldaduz jositako hiri bat... Ez zara gero ibiliko horietakoren batekin nahaskeriatan?

Galderak gaitzitu egin zuen, eta erantzun ere egin gabe alde egin zuen etxetik. Oria ertzera joan, eta belarretan eseri zen. Izugarri maite zuen lur zati hura, zelai berdeak, haren paisaiaren parte ziren baserriak: hantxe sortu zen, eta han igaro zuen haurtzaroa. Baserrietan, kalekoaz bestelako abiadura batean gertatzen ziren gauzak; patxadan bizi zen jendea, eta beti zegoen berriketarako tartea edo, besterik gabe, Natura mirestekoa, uraren xuxurla edo haizearen txistua entzutekoa. Ez zuen ama ezagutu, baina izugarri nabari zuen haren falta; faltan zuen emakume bat edukitzea alboan, bere itxaropenak eta izuak nori kontatu edo, besterik gabe, norrekin hitz egin izatea. Eta orobat nabari zuen aitaren falta, txikitako aitarena, haritza bezain gizon sendo harena, zeinaren aldamenean sentitu baitzen beti babesturik baina bihurtu baitzen agure betilun bat. Halako batean, nekea sentitu zuen, baina gauza bat zeukan argi: alabarentzat eta bientzat sortutakoa zen orain bere etxea, Iñigo kaleko lan-tegiaren gainean kokatutako etxebizitza txiki hura. Ez zeukan beste inoren premiarik; konponduko ziren biak bakarrik. Ibaiertzetik baserrira itzuli zenerako, alde egina zen aita, eta hari agurrik esan gabe itzuli ziren ama-alabak Donostiara.

—Eta hemen Badajozen bezala gertatuz gero, zer?

Gurutzeaga notarioaren galdera entzunda, hark beste bi gizonekin zuen eztabaidan jarri zuen arreta.

Jakinekoa zen Extremadurako herri hark zer patu izan zuen aurreko urtean aliatuek «askatu» zutenean. Gudaroste frantsesaren erresistentziarekin eta hark eragin zizkien hildako ugariekin amorratuta, soldadu ingelesek dozenaka etxe erre eta herritarrak sarraskitu zituzten. Ez ahal zitzaien beraiei ere gauza bera gertatuko, orain, frantsesen burugogorkeriagatik, batetik, eta ingelesten suminagatik, bestetik.

—Ez da gertatuko —bota zuen Brunet bankariak biribil.

—Eta zergatik ez zuen gertatu behar, ba? —notarioak, berriro—. Herri garaituen patua da garaileen zapalkuntza jasatea.

—Badajozkoa berriro errepikatu ez den gertaera negargarri bat izan zen. Lord Wellington jaun zintzoa da.

—Ez dago jaun zintzorik gerra garaian, laguna. Gerran, otso odol-goseen gisa portatzen dira gizonak. Heriotzen eta hondamendien kronika da gizateriaren historia.

—Dramatiko jartzen ari zara. Frantsesek ez dute hemen zer eginik. Zenbat dira? Hiru mila? Lau mila? Gudaroste aliatua dozenaka milaka gizonak osatzen dute. Sinetsidazu, don Frantzisko, Rey jeneralak bandera zuria ateratzeko agin-dua emango du espainiar, ingeles eta portugaldarrak harresien aurrean agertzerako.

—Hala ere, egokiagoa iruditzen zait hori gertatu artean plaza ebakuatzea.

—Nik ez dut, ba, etxetik mugitzeko asmorik, eta gure askatzaileek Donostia zapaldu bezain laster haiei ongietorria egitera aterako naiz.

Maritxu ez zegoen hainbesterako prest, baina nahiko bat zetorren iritzi harekin. Ez zuen arrazoirik ikusten etxeak

eta negozioiak abandonatzeko. Hirian geldituko zen bera ere. Lasaigarria zen Bruneten ospea zuen gizon bat berarekin ados egotea, edo bera harekin, berdin zen, azken batean.

—Gure askatzaileak iristen direnean, beso zabalik hartuko ditugu —entzun zuen esaten.

Bera ere desiratzen zegoen haiek iristeko, itxaronaldiaren arrangura behin betiko amai zedin. Ez zen zuhurra garaituen bandoan egotea, behartuta bazen ere, eta frantsesek galdua zuten gerra. Gazteluan eta herritarren etxeetan pilatutako lau mila soldaduak ez ziren aski izango aliatuen gerra-makina izugarria geldiarazteko, zeina baitzeturren garaile, frantsesak lurraldetik egotziz.

—Gaiztoagoak hobea egingo nau...

Larritu egin zuen ordura arte isilik egondako hirugarren gizonaren doinu goibelak. Ez zuen ezagutzen izenez, baina lokalean ikusia zuen noizbait, bankariarekin.

—Zertara dator hori? —galdetu zion Brunetek.

—Hitz egiteko modu bat da...

—Txorakeria galanta! Frantsesek bost urte daramatzate hemen, eta badute garaia ospa egin eta beren lurrera itzultzeko. Ez didazu esango, gero, inbadituta bizitzea gustatzen zaizula?

—Eta zer alde dago, ba, batzuen eta besteen artean? Frantsesak, ingelesak, espainiarrak... Bat ez denean, bestea. Batzuetan, aliatu egiten dira, eta besteetan, berriz, elkarren aurka oldartu, beren errege eta politikarien apeten arabera, baina herriek jasaten dituzte beti ondorioak. «Gerraren legea da garaileek nahierara erabiltzea garaituak», halaxe esan zuen Julio Zesarrek.

—Hor konpon garaituak, hor konpon, frantsesak! Donostiarrok ez dugu gatazkan batere esku hartu.

—Gaez, katu guztiak beltzak...

—Kokoteraino nago zure esarekin, eta banoa etxera. Bazatoz, don Frantzisko?

Bankariak mahai gainean zilarrezko erreal bat utzi, eta bi gizonak lokaletik atera ziren, hirugarrena ironiaz haiei begira zela. Maritxuk ez zion begirik kentzen.

—Benetan uste duzu arazoak izango ditugula? —galdetu zion ontziak biltzera eta erreala jasotzera joandakoan.

—Alde egin ezazu, andrea: garaiz zabilta oraindik —bota zuen gizonak, eta altxatu, eta buruaz agur egin ondoren, atera egin zen hura ere.

Pentsakor gelditu zen Maritxu. Hasierako erabakimena zalantza bihurtu zen. Eta notarioak eta gizon hark ziotena egia bazen? Eta han ere Badajozen gertatutako gauza bera gertatzen bazen?

Lokalean pare bat bezero besterik ez ziren gelditzen, bi anaia mutilzahar; Oihanarte, abizenez. Bere etxepean bizi ziren, goiko solairuan, eta entzuna zien beren adinean berdin-berdin zitzaiela toki batean zein bestean hiltzea eta, aukeran, nahiago zutela beren Donostia kutunean hil. Ospatzeko, beste txokolata katilu bana eskatu zuten, eta baso bana uxualdez lagundu, oraingoan, umoretsu esanez ur azukreduna ona zela titiko umeentzat eta gaixoentzat, baina ez beraien moduko gizon zailduentzat. Urduri samar itxaron zuen haiek alde egin arte, eta, gero, lokala jaso, eta kalera irten zen, dena txukun eta bi atek ongi itxita zeudela ziurtatu ondoren. Gaueko hamarrak jo gabe ziren, artean, baina askoz ere beranduago ematen

zuen. Ez zen arimarik ikusten, ezta urte sasoi hartan kalean jolasean ibili ohi ziren haurren garrasirik entzuten ere; ez zegoen emakumerik iluntzeko freskuran atari aurrean zumitzezko aulkitxoetan eserita, ezta bikoterik ere ilunpetan xuxurlaka. Hotzikara moduko bat sumatu, xala soinaren bueltan estutu, eta atarian sartu zen, lehenbailehen etxeko epelera iristeko desiratzen. Eskailerak igotzen hasitakoan, ordea, iritzia aldatu zuen; ataria argitzen zuten bi argiontziak bat hartu, eta kanpora irten zen.

Santa Maria elizarantz abiatu zen. Lasai pentsatzeko premia zeukan, eta etxean ezinezkoa zitzaion. Akaso ordurako lo egongo zen Marina, baina akaso ez, eta ez zuen alabarekin topo egin nahi erabakia hartu gabe. Ez zituen entzun nahi, halaber, Joxeparen arrangurak, eta gauza segurua zen hura oheratu gabe egongo zela, Maritxuren zain, bere beldurrak hari kutsatzeko pronto. Eskaileretan gora zihoala, Juan Bikuñaren ama ikusi zuen elizatik irteten; merkatari aberatsa eta hainbat etxeren jabea zuen semea. Haren aurretik, neskatila bat zihoan, ez bere alaba baino zaharragoa, kanabera bati eutsiz, zeinetatik zintzilik baitzeraman argiontzi bat, nagusiak ilunpetan ongi ikusteko. Une batez, burutik pasatu zitzaion eliz atarian elkar gurutzatzean gelditzea eta komentarioren bat egitea, ebakuazioari buruz zer iritzi zuen jakiteko; baina, azkenean, keinu bat eginez erantzun zion haren agurrari. Sekula ez zioten elkarri bi hitz jarraian egin emakumea bere familiarekin txokolategira joaten zenean, eta beren arteko harremanak ez zuen orain zertan aldatu. Maria del Carmen andrea eta bera ez ziren gizarte maila berekoak, eta, seguru asko, pentsatu zuen, kezka ere ez zituzten

izango berdinak. Atzera jiratu, eta hari begira egon zen, harik eta argiontziazen distira dardarkaria Puiuelo kaletik desagertu zen arte. Gero, xala buru gainetik pasatu, eta elizan sartu zen.

Kanpoan halakoxe isiltasuna zegoen barruan. Intsentsu eta kandela usaina zegoen, nahiz eta gutxi batzuk besterik ez ziren gelditzen piztuta, albo kapera batean edo bitan. Elizan aurrera egin zuen, bere urratsen hotsa entzunez; belaunikaldia eta gurutzearen seinalea egin; lehen aulkian eseri, eta Koruko Amaren imajinan iltzatu zuen begirada. Bi olio lanpara handik argituta zegoen. Gainerako herrikideek bezala, jaiera handia zion imajina txiki hari; gailen ageri zen orain, aldare nagusian, baina, aspaldian, elizako koruan egon zen, harik eta kleriko batek, hari otoitz egitera korura igo beharraz nekatuta, sotanapean ezkutatu eta etxera eraman nahi izan zuen arte. Iritsi omen zen kleriko hura eliz atera, halako batean, baita mugitu ezinik hantxe gelditu ere, zurrun; eta, mirarizko gertaera harez geroztik, donostiarrek irrika beraz gurtzen ziztuzten Ama Birjina eta herriaren patronimikoa. Maritxuk ezin zituen bereizi Ama Birjina beltzaren eta hark besoetan zuen haurtxoaren keinuak, baina, urrunetik, haurra esku bat miazkatzen ari zela zirudien, jaioberriek egiten duten bezala.

—Ebakuatu egingo ote dute, eta bere ama zaintzailerik gabe utziko ote dute Donostia? —galdetu zuen ozen.

—Ez horixe! —erantzun zion gizonezko ahots batek, gaitziturik.

Beldurrez inarrosi zen, baita segituan lasaitu ere, ikusi zuelarik Santa Mariako erretorea, don Domingo, kopetilun,

berari begira. Aldarte txarra izateko ospea zuen, baina ongi ezagutzen zuen berak. Are gehiago: bigarren aita moduko bat zen beretzat, eta aitona modukoa, Marinarentzat; hark baitaiatu zituen biak, hark eman zien Lehen Jaunartzea eta, beretzat, gainera, kontsolamendu handia izan zen Eusebio hil zenean. Bazekien ez zela inori minik egiteko gai, eta itxurazko zabarkeria hura hurkoekiko zuen samurtasuna disimulatzeko modu bat besterik ez zela.

—Eta eliza erretzen badute? —galdetu zion.

—Nor ausartuko da halako sakrilegioa egitera?

—Frantsesak, espainiarrak, portugaldarrak, ingelesak...

—Ez esan txorakeriarik! Kristauak dira denak, bueno...

—Zalantza egin zuen—: Ingeles protestanteak ez hainbeste, agian.

—Soldaduak dira, baina.

—Soldadu kristauak.

—Gerra egiten dutenak, eta jendea hiltzen eta etxeak erretzen dituztenak... baita elizak ere.

Erretorea isilik gelditu zen segundo batzuez. Kopeta argitu zitzaion, baina Maritxuk kezka sumatu zuen haren keinuan.

—Hemen ez da halakorik gertatuko —esan zuen, azkenik, irmo.

—Jaungoikoak entzungo ahal dizu...

—Horrek entzuten dit —esan zuen, Ama Birjinaren imajina seinalatuz.

—Mirarietan sinesten duzu?

—Maritxu Altuna! —oihukatu zuen, asaldatuta—. Ez zinen, gero, ateo bihurtuko?

Berriro kopeta zimurtu zuen erretoreak, eta besoak gora jaso zituen, espantuka; kostata eutsi zion barreari Maritxuk.

—Ez nintzateke hemen egongo hala banintz...

Bere hitzak entzunda, baretu zen erretorea, eta irribarre egin eta aldamenean eseri zitzaion.

—Berandu samar da kalean ibiltzeko, ez duzu uste?

—Pentsatu egin behar nuen... Ez dakit zer egin eba-kuazioaren kontu horrekin.

—Ez da ezer gertatuko.

—Hala uste dut nik ere, baina... Marina ere hortxe dago eta... Aliatuak behingoz Donostian sartzen direnean, soldaduz beteko da herria. Milaka omen dira, eta neskatila bat besterik ez da bera oraindik, ez nuke nahi... zera...

—Bidali bere aitona fedegabearengana.

Oraingoan, barre txiki batek ihes egin zion Maritxuri.

Bere aita eta erretorea gaztetako lagunak ziren; Zubietako parrokiari aritu zen aurrea don Domingo, seminariotik atera berri; eta hasieratik konpondu ziren ongi, eta halaxe jarraitu zuten gerora ere, biak ia aldi berean Donostiara aldatu zirelarik. Denboraren joanean, handituz joan zen beren arteko adiskidetasuna, bai eta sinesmenari buruz zituzten desadostasunak ere. Maiz entzunak zituen luzaz eztabaidan, adostu ezinean, ez batek ez besteak amore ematen ez zutelako. Aitak Frantziako Iraultzaren aldeko jarrera izateak eta apai-zak hari zion arbuioak ezinezkoa egiten zuten akordioa. Iraultzaileek aldarrikatzen eta bere aitak goresten zituen berdintasun, senidetasun eta askatasunak aurrez aurre talka egiten zuten apaizak haien kontra egiten zituen salaketekin, alegia Konstituzioa sinatzeari uko egiten zioten erlijiosoak

gillotinan garbitzen eta deportatzen eta erbesteratzen zituztela.

—Fedegabeak! Horixe dira zuk hain gogoko dituzun iraultzaile jende horiek! —oihukatzen zuen klerikoak suhar, eta horrekin amaitutzat ematen zuen eztabaida.

Bere aita Zubietara itzuli zenean, Maritxuk bete zuen hark utzitako hutsunea; apaizak faltan botatzen zuen laguna, aitortu ez arren. Egunero joaten zitzaion Maritxuri txokolategira, mezaren ondoren, eta etxeakoandreak katilukada bat txokolate atera, eta ez zion kobratzen, apaizak beti eskua sotanako patrikara eraman eta zenbat zen galdetzen zion arren. Hamabost urteko errituala zen jada.

—Ez dakit Marinak nahiko duen... Oso aldatuta dago azkenaldian, suminkor; eta ez dugu apenas hitzik egiten... —pentsatu zuen ahots goran.

—Adina —argudiatu zuen don Domingok—. Gazteek ezin negonezko aldi bat izan ohi dute heldutasunera iritsi aurretik; ez dira gustura sentitzen beren gorputzaren barruan, eta helduei kontra egiteko tema jartzen zaie. Horrelaxe ibili zinen zu ere.

—Ez da egia. Haren adinerako, ezkon hitza emana nintzen ni.

—Aitaren borondatearen kontra, nahiago izango baitzukeen zuri bere alboan urte batzuk gehiago eustea.

Maritxuk bekainak jaso zituen, harriturik.

—Ez zuen ezer esan.

—Jaramon egingo zenion?

Maritxu isilik gelditu zen, eta sabaira begiratu zuen, bere nahasmena ezkutatu nahian.

Sekula ez zuen jakin bere erabakiak aita poztu edo tristatu zuen, gizon isilegia baitzen bere sentimenduei zegokietez; baina txintik esan gabe eman zion baimena. Besteen ahoetsen gainetik gailen agertu zale zen hizlari sutsuak nekez uzten zituen agerian bere ahultasunak. Bazkideari saldu zizkion eraikuntzako negoziotik zegokion partea eta San Jeronimo kaleko etxebizitza; Txokolatearen Etxea irekitzeko behar adinako ezkonsaria eman zion Eusebiori, eta, gero, Eguzkienera erretiratu zen, baserrira, mendian bizi eta bere lurrez eta abereez arduratzeko asmotan. Alargundu ondoren alaba eta biloba berarekin bizitzera joango zirela espero izango zuen aitak, bazekien hori Maritxuk; baina ez zion esan, Maritxuk lantegian jarraitzea erabaki zuela azaldu zionean ere. Eta erabaki hark areagotu egin zuen bien arteko urruntzea. Gutxitan joaten zen aita Donostiara, eta, joaten zen apurretan, enkontru hotzak izaten zituzten, garai bateko konplizitatearen arrastorik gabeak. Maite zuen aita, eta ziur zegoen hark ere maite zuela bera, baina ez bata ez besteak ez zuten adierazten, eta, urteek aurrera egin ahala, elkarrengandik gero eta urrunago zeuden. Nolanahi ere, garai bateko iraultzailearen tankeran sumatzen zituen, tarteka, berak oroitzuten zuen Tomas Altuna hura gogorarazten zuten arrastoak, Marina eta biak Zubietara joaten zirenean. Halakoetan, gelditu egiten zen denbora, ordu batzuez, eta garai batean bezala, edo antzera, izaten zen dena.

—Orduan, alaba aitonarengana bidali beharko nukeela iruditzen zaizu?

—Bai, baldin eta lasaiago geratuko bazara. Ez da seme-alabentzat ona gurasoen kezka sentitzea. Hala ere, badakizu

nire etxean badela tokia bientzat, baita egun osoa edozer gauzagatik negar-zotinka ematen duen Joxepa mainontzi horrentzat ere. Wellington jenerala bera ere ez da ausartuko bertan sartzera, eta hobe du horrela!

Apaizaren azken esaldiak berriro irribarre eginarazi zion Maritxuri, eta hari eskua heldu, eta eskuan muin eman zion.

Lasaiago itzuli zen etxera; erabaki bat hartu zuen, eta ezin negona baretu zion horrek. Biharamunean Zubietara bidaliko zuen Marina, eta, bide batez, baita Joxepa ere. Erretoreak esandakoak gorabehera, emakume langilea zen Joxepa, eta mesede handikoa izango zitzaien baserrian. Bera, berriz, herrian geldituko zen. Julianek eta apendizetako bik ere gelditzea erabaki zuten; hirugarrena Orioko ahaideen etxera alde egina zen ordurako. Ezin utziko zuen negozioa babesgabe; gainera, ongi gordeta zeukan Eusebioren ehizako eskopeta, eta duda-mudatan ibili gabe erabiliko zuen, hala behar izanez gero. Pare bat astean, asko jota, errenditu egingo ziren frantsesak, eta horretantxe geldituko zen sustoa: susto hutsean.

Joxepa lo zegoen sukaldeko gelaxkan, baita Marina ere, bere logela txikian. Pixka batean alabari begira egon zen, argiontzia gora jasota. Ile kizkurrak burukoan zabalduta eta haur aurpegi harekin, hain zirudien kaltebera, bihotza uzurtu baitzion hari okerren bat gerta zekiokeen beldurrak.

Biharamunean esan zion egun hartan bertan Zubietara zihoala.

—Zergatik alde egin behar dut? —galdetu zuen gazteak.

—Nik esaten dudalako.

—Eta nahi ez badut?

—Joan egingo zara, edonola ere.

—Zergatik?

—Zure ama naizelako eta hala agintzen dizudalako.

—Eta ez al dut nik ezer esaterik?

—Ez, egoera hain nahasia den bitartean.

—Zuk esana da, ba, hemen ez dela ezertxo ere gertatuko...

—Jakina ez dela gertatuko, baina ez daukat ez gogorik ez denborarik gerraren kontu hau guztia amaitu arte zutaz arduratzeko. Prestatu zure gauzak; Lurreko Ateraino lagunduko dizuet lantegia ireki aurretik.

Bazuen alabari esatea bera zuela kezka bakar eta egiazkoa, inola ere ez zuela arriskuan jarri nahi eta askoz ere lasaiago egongo zela jakinik aitonaarekin onik zegoela; baina ez zion esan. Ezpainak estututa ate danbateko batez bere logelan sartzen ikusi zuen Marina. Eta zain gelditu zen, harik eta alaba atera zen arte eskuan poltsa bat zeramala.

Isilik joan ziren Kale Nagusian aurrera, Plaza Zaharre-rantz, bera aurretik, Marina jarraian, eta Joxepa, azkenik, hasperen batean eta begiak esku ahurraz igurtziz, gajoa. Haren lehenengo erantzuna andrearen erabakiaren kontra protesta egitea izan zen. Nola utziko zuten Maritxu han bakarrik? Ez zen itxurazkoa emakume bat bakarrik gelditzea kalean hainbeste soldadu zebiltzala. Ziur al zegoen egitera zihoanaz? Zergatik ez zen beraiekin joaten? Behin eta berriz esan ondoren ez ahanzteko bi sarrailak giltzaz ixteaz, hitza emanarazi zion berak ere herritik alde egingo zuela gauzak okertuz gero, eta, ondoren, fardela prestatzera joan zen, handitzen ikusi zuen neskatilaren hobe beharragatik sakrifizio hura

egiteko prest, batere graziarik egiten ez zion arren haren aitona zaputzarekin bizi behar izateak.

Herritik alde egitera zihoan jendez gainezka zeuden Plaza Zaharraren inguruak. Frantsesek Gasteizen izandako porrotaren berria iristea eta ehunka lagunek erbestera ihes egitea batera izan ziren ia. Josef Bonaparte ez zen Donostian agertu bere erreinu berri galkorrera iritsi zenean egin zuen bezala. Gasteiztik Nafarroa aldera jo, Elizondon gaua egin, eta, Beratik muga zeharkatu ondoren, Donibane Lohizunen ezarri zuen kuartel nagusia. Ateratzeko zain zeuden haietako asko ez ziren donostiarrak, gaua harresien barneko esparruan eman zuten iheslariak baizik. Ihesi zihoazen «frantses-etuak», edo hala deitzen zituztenak, Bonaparteren administrazioaren zinpeko funtzionarioak, Espainiako koroaren lurretan finkatutako frantses tratulariak, absolutismoa eraisitea amets zuten eta ideia iraultzaileei jarraitzen zieten intelektual liberalak, babesa ematen zieten armak desagertu orduko beren kontra etorriko ziren bortizkerietatik ihesi. Berandu bazen ere, iristen ziren berriak, iritsi, eta jakinekoea zen errege dekretuaren testuak zer zioen, alegia, jazarriko ziztaiola nahita edo nahi gabe arrotzari lagundu edo ideia liberalekiko jaiera erakutsi zuen orori. Maritxuk ez zituen ezagutzen jende haiek; bai, ordea, bere bizilagun frantses batzuk eta beste gipuzkoar batzuk, zeinak aldarrikatu baitzuten Gipuzkoak, Arabak eta Bizkaiak bat egin behar zutela probintzia frantses berri bat sortzeko. Haiek ezingo zuten sende eta lagunien baserrietan babestu: ez zuten erbestera beste irtenbiderik, eta ingurura begira-begira zeuden batzuk, hainbeste maite eta sekula gehiago edo, gutxienez, denboratan

ikusiko ez zuten txoko haren irudia begi-ninietan betiko gorde nahian bezala. Beraiek, behintzat, Eguzkienea zuten, bigarren etxea.

Irteteko baimenaren zain Lurreko Atearen aurrean pila-tuta zeuden familia osoak saskiz eta fardalez kargatuta, aurpegi goibeleko gizonak, emakume negartsuak eta haur urduriak, helduen zorigaitzaz oharkabe. Soldaduek zorrotz miatzen zituzten fardelak, eta orotariko armak konfiskatzen: aizto, pistola, eskopeta eta Mosketeak, oro har, baina baita itxuraz kalte eragitekoak ez ziren bestelako lanabesak ere, igi-taiak eta aitzurrak esaterako, haien jabeek protesta egin arren esanez inork erasoz gero nolabait defenditu beharko zirela. Rey jeneralak agindu zuen herritarrei armak konfiskatzeko, okupatzaileen kontra oldartu ez zitezten. Halaxe azaldu zion miaketan ari zen ofizial batek gizon bati, plazer agerikoaz arakatzen zituen bitartean gizon haren jabetzako zizpa trabuko zoragarri bat, zilarrez zizelkatutako kanoia zuena, eta zilarezko damaskinatuz estalitako altzairuzko bolbora ontzia.

—Ni banoa, ordea, eta ez dago, hortaz, zuen kontra erabiltzeko arriskurik! —oihukatu zien gizonak, sututa.

—Sentitzen dut. Aginduak agindu dira —erantzun zuen ofizialak, zirkinik egin gabe, eta aldamenean zeukan ordenantza zurrunari eman zizkion arma eta bolbora ontzia, baita hark berehala eramanez ere.

Kontrol postutik urrats batzuetara, elkarrizketari adi zegoen Maritxu. Begiradaz ordenantzari jarraitu, eta egiaztatu zuen ez zuela utzi trabuko hura gainerako arma konfiskatuekin batera; Kuartel kalean gora igo zen, bizkor. Argi zegoen ofizialak objektu baliotsu hura bereganatzea erabaki

zuela, eta ez zen bakarra izango, noski. «Inbaditzaileak ez ezik, lapurrak ere bai», pentsatu zuen.

—Guk ez daramagu ezer... konfiskatze korik —esan zuen txanda egokitu zitzaientean, ironiazko doinuaz nabarmenduz azken hitza.

—Eta fardel horiek? —galdetu zuen militarrek.

—Arropa.

Ofizialak gora begiratu, eta irribarre egin zuen, harriturik.

—Andre Maritxu! Zu ere ba al zoaz?

Mercier kapitaina zuen parean, eta ez zion erantzun. Ordura arte ez zuen ezagutu edo, besterik gabe, ez zuen hartu trabukoaren pasadizoan haren aurpegiari erreparatzeko lanik.

—Ez. Bera gelditu egingo da, baina bidali egin nahi gaitu traban gaudenok —sartu zen Marina tartean, erresuminduta.

—Ongi egiten du —berretsi zuen Mercierrek, berriro ere irribarretsu—. Une honetan, ez da hau neskatila batentzako toki aproposa. Erabaki egokia hartu duzu, pozten naiz —gehitu zuen, Maritxuri begira.

—Ez nago, ba, hain ziur. Baliteke iritzia aldatzea. Pasatu gaitzke, ala miatu egingo gaituzu?

—Ez, noski! Utzizue pasatzen!

Batzuk gurdiz, gehienak oinez, iheslari ilara luzeak itsasbeheran agerian gelditzen zen lur zerranda osoa betetzen zuen. Mantso zihoazen, talde batzuk besteen atzetik; ez zen ia ahotsik entzuten, eta haien begiradan ezagun ziren beldurra eta atsekabea, tristura sakon batekin nahastuta. Maritxuk

Santa Katalina auzoraino lagundu zien alabari eta Joxepari. Hasieran, asmoa zuen Lurreko Ateraino joan eta hantxe agurtzekoa; baina gogotik kendu ezinik zebilen hura zela lehen aldia Marina eta biak banatzera zihoazena eta ez zekiela noiz ikusiko zuen berriro. Etxetik zenbat eta gehiago urrundu, orduan eta handiagoak haren beldurrak. Litekeena zen gaixotzea, edo ezbeharren bat izatea, eta ezingo zuen egon alabaren alboan hura zaintzeko. Frantsesak errenditzen ez baziren, luzatu egingo zen gerra, eta arriskua zegoen bera ere zauritzeko edo hiltzeko; eta, hala balitz, ez zuen sekula gehiago ikusiko bizitzan axola zitzaion aurpegi bakarra. Istant batez, herrian gelditzeko bere asmoa pikutara bidali eta aurrera jarraitzekotan egon zen.

—Ez gara galduko; badakizu, ezta, ama?

Belarrondoko bat jo baliote bezalaxe sentitu zuen Marinaren ahots zakarra, eta bat-batean geratu zen.

—Agur, orduan.

—Agur.

Ez irribarre bat, ez agurreko musu bat; gazteak eskua altxatu, eta oinez jarraitu zuen, atzetik zuela Joxepa, negarretan urtzen. Urumearen bi ertzak lotzen zituen egurrezko zubian barrena zihoan jende eta gurdi andanaren artean galtzen ikusi zituen, eta haiengana lasterka hasteko bulkada izan zuen. Ume malapartatua! Gustura emango zion zaplazteko galanta! Haserre itzuli zen herrira, kontrako noranzkoan zetozen auzokoekin gurutzatuz, zeinak begirutzen baitzioten harrituta. Bizitza normaltasunera itzultzen zenean, arriskurik ez zegoenean, bi hitz egin behar zituen Marinarekin, gauzak bere tokian jartzeko. Ez zen naturala ama-alabek elkar

iraintzeko beste ezertarako elkarri ez hitz egitea; baina, akaso, berea zen errua, harekin maitekorragoa ez izateagatik, nerabe batekin pazientzia gehiago eduki ez izanagatik...

—Berak ere bazuen atseginagoa izatea —esan zuen, ahots goran.

Aldamenetik pasatu zitzaion emakume bat begira gelditu zitzaion, burutik eginda zegoela pentsaturik. Noizbait kendu beharko zuen ahots goran pentsatzeko ohitura hura ere, esan zion bere buruari, beste behin, eta Lurreko Atea zeharkatu zuen. Lasaitu zen ikusirik kapitaina jada ez zegoela han. Ez zeukan hura berriro topatzeko batere gogorik, ez baitzekien nola erantzungo zion. Frantsesen erruz banatu behar izan zuten alabak eta biek eta alde egin behar izan zuten herrikide askok soinean zutena beste ezer gabe. Eta alferrik. Egia bazen esaten zutena, aliatuak milaka dozena zirela, alferrik saiatuko ziren inbaditzaileak haiei aurre egiten. Noiz amaituko ote ziren agintarien azpilanen arrastorik ere ez zuten herritar zibilei hainbeste min eta kezka sortzen zieten gerra mardikatuak? Noiz etsiko ote zuten beren anbizioan eta utziko ote zieten herriei bakean bizitzen?

—Gizonak direlako da hori —esan zuen Otilia bere lagunak, San Jeronimo kaleko mertzeriako jabeak, egun batean okupazioaz eta haren ondorioez ari zirela—. Emakumeak balira, izango zuten nahikoa kezka, gerrarik eta indarkeriarik gabe. Begira nire senar zena ere, goian bego, baldin eta lortu badu zerura igotzea, ni mando emea banintz bezalaxe egiten baitzidan amodioa, modu dotorean esateko, nazkagarri hark. Ez laztanik ez musurik, ezta ezertxo ere. Nire gainean jarri, hustu, eta lo seko, astazakil halakoa!

—Eta zer du horrek gerrarekin ikusteko? —galdetu zion Maritxuk, barreari eutsi ezinik.

—Ba, «hori» egiteko bezalaxe zela kapaz kontra egiten zion edonorekin muturka hasteko. Ez zekien elkarrizketa eratsu bat izaten, eta dena egin behar zuen indarrez.

Eusebio ez zen horrelakoa. Samurra zen berarekin, min emango zion beldur balitz bezala, eta ez zuen inoiz erabili ehi-zako eskopeta —bide batez, ez zeukan Maritxuk hura frantsesei emateko inolako asmorik—, pena ematen ziolako erbia ere akabatzea. Maritxuren aitak oparitu zion, artean ezkongai zeudela, suhia ehizara berarekin irtengo zen itxaropenez; baina Eusebiok beti aurkitzen zuen ehizara ez irteteko aitzakiaren bat. Ez zuen sekula garrasi egiten, ezta inorekin mokoka aritzen ere. Agian horregatik ez zen Maritxu berriro ezkondu, Otiliaren senarraren moduko gizon oldarkor bat topatzeko beldur zelako.

—Gizonak erditu beharko balira beren umeez, ez zituzten hain erraz bidaliko bost axola zaien norbaitengatik edo zerbaitegatik inor hiltzera edo inork hiltzera —jarraitu zuen lagunak—. Eskerrak gure Jaungoikoak ez didan umerik eman. Aita bezain astazakilak aterako ziren eta!

Maritxuk bazekien Otiliak ez zuela sinesten esaten zuena. Ikusi besterik ez zegoen nolako inbidiaz begiratzen zion Marinari, eta nolako maitasuna jartzen zuen hari mantalak eta txabusinak josten; ez zuen txakur txikirik kobratzen umea hain txikia izanik oihal-pieza erdia eta hari-mataza bat ere ez zuelako behar izaten haiek egiteko, esaten zuen, eta, «zer arraio —gehitzen zuen—, nire alaba besoetakoa delako». Maritxuk ez zuen Otilia azken egunetan ikusi, eta, ez zekienez

alde egitea edo gelditzea erabakiko ote zuen, itzulingurua egitea pentsatu zuen, haren mertzeriatik pasatzeko. Itxita aurkitu zuen, baita etsipen puntu bat sentitu ere. Otilia zuen, nolabait esateko, benetako lagun bakarra, ahizpa ia. Gainerakoekin hala moduzko harremana zuen, kaixo eta agur. Oso bakarrik sentitu behar zuen aurrerantzean, alde egin zutelarik alabak eta lagunak, baita bere koinatu astunak ere, zeina baitzen herrian zeukan ahaide bakarra, izatez.

Irekita aurkitu zituen lantegiko ateak, eta hango txokolate usain kutunak halako bake sentsazio bat eragin zion. Dena berdin zegoen. Orduan gogoratu zen bezperan ez zuela prestatu eltzera botatzeko nahastura, eta etxera igo beharko zuen; baina lokalean sartu zen lehenik, dena zuzen zegoela egiaztatzen. Julian eta bi apendizak lanean ziren, beste edozein egunetan bezala, eta irribarre batez agurtu zuten, baita berak irribarre itzuli ere; eta, nor topatuko pisuen mahaiairen aurrean, eta Otilia, kakao hauts eho berria pisatzen.

—Joan da neskabila, orduan? Kezka bat gutxiago. Ongi egongo da Zubietan. Pixka bat laguntzera etortzea pentsatu dut: hara, bi egun daramatzat kortxete ziztrin bat ere saldu gabe, eta ez dut uste egoera honetan emakumerik izango denik brodatzeko gogoz —esan zion, halako ezustekotik bere onera etortzeko astirik ere eman gabe—. Eta, ongi iruditzen bazaizu, egun hauetan zurera etorriko naiz bizitzera, dena amaitu arte. Bakarrik dagoen emakume bat tentazio handia baita harrapariz jositako herri honetan. Baita neroni ere, hain itxura negargarria dudalarik, iharraren iharrez!

Otiliaren hitzek eta haiek esateko erabilitako doinu komikoak barre eginarazi zien. Azken orduetan bizitako tentsioa

arintzeko premia zuten, eta erremedio ezin hobea zen Otilia, emakume xaloa, unerik gaitzenetan ere kikiltzen ez zen horietakoa.

Egun hartan, ez zen inor sartu lokalean arratsalde berandura arte, Oihanarte anaiak agertu ziren arte, ohi bezala, likido ketsuaren eguneko errazioaren bila; bi emakumeek eta hiru gizonak jo eta su lanean eman zuten egun osoa, ordea, txokolate pastillen eskari zerrenda amaigabe bati erantzun beharko balioite bezala eta txokolategia bezeroz gainezka balego bezala.

Zalgurdi estalkigabearen gidariak ibai gaineko zubitik hogei bat metrora geldiarazi zituen zaldiak, gaztetxo baten jarraibideei men eginez, zeinak baitzuen eskuan makila bat, puntan zapi gorri bat zeukana zintzilik, eta botatzen baitzituen egundoko garrasiak, berehalako arrisku bat iragartzen ariko balitz bezala. Beti berdin; gutxitan izaten zuen zubira zuzenean sartzerik, puska batean zain egon gabe. Beste ibaiertzera begiratu zuen, begien gainean eskua jarrita, eguzkiak ibaiko uretan egiten zuen dirdirak ez itsutzeko, eta ikusi zuen goraino zamaturiko ibilgailu bat zihoala aurrena, eta haren atzetik beste bat, zama handiarekin hura ere. Gizonak mihia klaskatu zuen. Zamarraren patrikatik patxadaz atera zituen itsasoko aparrezko pipa bat, denboraren eta erabiliaren poderioz halako urre-kolore ilun bat zuena, eta tabako zorro bat; piparen ontzitzoa bete, eta tarte luze batean jardun zuen dundarekin suharria joz ardagaia eta, gero,